



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, 2018ko azaroaren 27koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena; honen bidez, 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetza beka-eskaeren ebazpen-proposamena ematen du.

Hezkuntza sailburuak, 2018ko maiatzaren 22ko aginduaren bitartez (2018ko maiatzaren 31ko EHAA), 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako Ikasiker lankidetza beken deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat.

2018ko maiatzaren 22ko Aginduak 13.artikuluaren xedatutakoaren arabera eraturako hautaketa-batzordeak, aurkeztutako eskaeren ebazpen-proposamena eman du.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.- Jakinarazi 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetza beken deialdiko eskatzaileei, beka deialdiko proposamena. I. eranskinean zerrendatzen dira esleipen-proposamena duten eskaerak; eta II. eranskinean ukapen-proposamena duten eskaerak.

Bigarren artikulua.- 15 egun naturaleko epea ezartzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beka ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera egiteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 27a.

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea

ADOLFO MORAIS EZQUERRO